

eleketa:



Ahozko oroimenak
Mémoires orales



eke-icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

AURKIBIDEA

1

Eleketa programa

4. orria

2

**« Eleketa, ahozko oroimenak » erakusketa
Hazparneko Lurraldea**

6. orria

3

Partaideak

10. orria

4

Harremanak eta xehetasun praktikoak

12. orria

eleketa:

1. ELEKETA PROGRAMA

IPAR EUSKAL HERRIKO MEMORIO KOLEKTIBOAREN IKUS-ENTZUNEZKO BILKETA

Beste lekuetan bezala, Euskal Herrian ondare immateriala egun oroz bizitzen da hizkuntza eta bere erabilera guzien bidez, bai eta ere jendarte praktiken, erritualen, besten, ikusgarrigintzaren, naturari edo eskulanei lotu jakiturien bidez.

Ezagutza eta bizipen hauen behin betikotz begiratzeko, Euskal kultur erakundeak proiektu handi bat abiatu du 2007an: ipar Euskal Herriko biztanleen ahozko memoriaren bilketa.

Programa hau, Eleketa izenarekin ezagutua dena, Pirinio-Atlantikoetako departamendu Kontseiluaren obragintzapean eramana da, urtero hogeita hamar bat lekukotasun bilduz.

425 LEKUKOAK ZENBAKITAN (2007-2020)

Sexua

283 gizon

142 emazte

Adina

60 urtez petik: 36

60-80 urte artean: 217

80 urtez gora: 172

Jatorri geografikoa

Lapurdi 216

Nafarroa Beherea: 160

Xiberoa: 46

Nafarroa 3

PROGRAMA ZENBAKITAN (2007-2020)

425 lekuko

508 oren grabaketa

9 180 ikus-entzunezko zati

10 datubase

100 herri

Lekukotasun bakoitza filmatua, numerizatua, sailkatua eta deskribatua da. Horrela, Baionako Artxibotegiak artxibatu eta publikoaren esku uzten ahal du. Bestalde, publikoari kontsultagune bat irekia zaio EKE-ren Uztaritzeko egoitzan eta lekukotasun batzuk Mintzoak.eus webgunean kontsulta daitezke.

BILKETAREN METODOLOGIA

1 / Bilketa

- Gidaritza batzorde baten osaketa lurraldeka
- Gaien eta lekukoen identifikatzea
- Lekukoarekin harremanetan sartzeara eta lehen bisita
- Elkarriketa
- Irudi eskubide baimena lekukoak izenpeturik
- Informazio fitxa inkestagileak beterik

2 / Elkarriketen tratamendua

- Elgarrizketaren zatikatzea
- Zati bakoitzaren izenburua eta laburpena
- Informazio guziaren (lekukoa eta elgarrizketari buruz) integratzea datu base berezi batean

3 / Artxibaketa

- Lekukotasun gordina, bere ikus-entzunezko zatiak eta loturik zaizkion informazioak (datu basea) departamenduko Artxibotegira (Baionako gunea) emanak dira

4 / Balorapena

- Erakusketa ibiltariak: « *Amikuztarrak mintzo, mémoire du Pays de Cize* » (2009), « *Itsasturiak, les gens de la mer* » (2011), « *Soka, regards sur la danse basque* » (2015), « *Eleketa, ahozko oroimenak* » (2020).
- Mintzoak.eus internet plataforma
- EKE-ko kontsulta gunea
- Sorkuntza egonaldiak *Eleketa* funtsetik abiatuz

Programaren arduraduna

Terexa Lekumberri (EKE)

Lekukotasunen bilketa

Terexa Lekumberri (*beste pertsona batzuen laguntzarekin lurraldeen arabera*)

Tratamendu artxibistikoa

Maite Deliart (EKE)

Filmatzea

Aldudarrak Bideo



© Jean Guyot

Euskal kultur erakundeak *Eleketa* fondoaren aberastasuna ezagutarazi nahi du.

« *Eleketa, ahozko oroimenak* » erakusketa multimedia xede honekin sortua izan da: lurralde bakoitzean bildu lekukotasunak lurraldera itzul daitezen eta jendeak goza ditzan.

***Eleketa* programaren helburua ipar Euskal Herriko ahozko memoria biltzea, artxibatzea eta hedatzea da.**

2. « ELEKETA, AHOZKO OROIMENAK » ERAKUSKETA HAZPARNEKO LURRALDEA

IRAILAREN 25ETIK • AZAROAREN 7RA
PIERRE ESPIL MEDiateKA
HAZPARNE

Erakusketa multimedia eta interaktibo honetan (ukipen-pantailez eta telebistez osaturik) Hazparneko lurraldeko 68 bat lekukoek (Aiherra, Bastida, Beskoitze, Donoztiri, Hazparne, Heleta, Izturitze, Lekorne, Lekuine, Makea) beren bizipenak eta oroimenak aipatzen dizkigute, **200 ikus-entzunezko pasarte, irudi eta objektuen** bidez. Bestalde, horien denen osagarri, **artxiboko erreportai eta bideo sorkuntzak** ikusgai izanen dira ere. Azpimarratzekoa da **bideo-pasarteak beren jatorrizko transkripzioarekin eta itzulpenarekin (euskaraz edo frantsesez) aurkeztuak** izanen direla erakusketan. Horrela bai euskaldunek bai erdaldunek gozatzen ahalko dituzte urtez urte bildu lekukotasunak.



© Polo Garat

GAIAK

Zapatagintzaren industria, mugimendu soziokulturalak, politika eta erlijioa, bizimoduak, baserri mundua, hezkuntza, erritualak, ...

« EUSKAL HERRIA ORAI ETA GERO » MAITE BARNETCHE

Partikularrak eta ikerlariak bezala, tokiko irratia eta telebistak ere ari dira Euskal Herriko memoriaaren biltzen. Maite Barnetchek (1941-1986) hanbat erreportai egin zituen, telebista publikoak « *Euskal Herria orai eta gero* » lema pean zabaldu zituenak 1971-1986 arte hortan. Horietarik batzuk ikusten ahalko dira Hazparnen, denak lurraldean filmatuak. Fondoa bere osotasunean kontsultagarri da Euskal kultur erakundean, Ustaritzen.

LEKUKOAK

Ainciart, Piarres (1937, Heleta)
 Ainciboure, Ttotte (1912, Heleta)
 Algueyru, Manex (1928, Heleta)
 Amorena, Battitta (1949, Lekorne)
 Arbelbide, Xipri (1934, Heleta)
 Barbier, Henriette (1933, Aiherra)
 Bellecave, Yvonne (1921, Makea)
 Blezio, Germaine (1938, Hazparne)
 Bonnet, Joseph (Ttotte) (1923, Hazparne)
 Borteyru, Bernard (1941, Hazparne)
 Cachenaut, Arño (1947, Irisarri)
 Caillaba, Xemartin (1930, Aiherra)
 Calderon, Luixa (1927, Beskoitze)
 Camblong, Ramuntxo (1939, Makea)
 Candelé, Teexa (1947, Hazparne)
 Carrère, Aña (1925, Iholdi)
 Claverie, Marie (1928, Makea)
 Cornu, Dominique (1947, Hazparne)
 Curutchet, Anne-Marie (1951, Luhuso)
 Curutchet, Armand (1940, Beskoitze)
 Curutchet, Jean-Pierre (1937, Heleta)
 Dagorret, Marie (1920, Lekorne)
 Dartaguiette, Jean-Baptiste (1928, Aiherra)
 Dirassar, Janbattitt (1937, Hazparne)
 Dubrocq, René (1938, Beskoitze)
 Duhalde, Dominique (1939, Donoztiri)
 Duhalde, Extebe (1928, Aiherra)
 Duhau, Henri (1942, Beskoitze)
 Dunat, Henri (1931, Lekorne)
 Dunat, Maite (1943, Heleta)
 Etchebarne, Jérôme (1974, Lekorne)
 Etcheberry, Jean-Louis (1944, Donoztiri)
 Etchemendy, Bernadette (1939, Hazparne)
 Etchepare, Luixa (1922, Heleta)
 Etcheverry, Jean-Pierre (1930, Heleta)
 Etxezaharreta, Lucien (1946, Hazparne)

Eyherachar, Xalbat (1943, Lekorne)
 Garat, Frantxoa (1944, Hazparne)
 Goyheneche, Jeannot (1940, Hazparne)
 Harignordoquy, Jean-Pierre (1948, Makea)
 Harignordoquy, Laurent (1980, Makea)
 Heguy, Gracie (1935, Hazparne)
 Heguy, Jean-Pierre (1927, Heleta)
 Heguy, Txomin (1955, Hazparne)
 Irigoïn, Pierre (1935, Hazparne)
 Itcia, Terexa (1928, Hazparne)
 Landarretche, Maddi (1932, Makea)
 Landart, Daniel (1946, Donoztiri)
 Larçabal, Battitta (1938, Hazparne)
 Larçabal, Mattin (1950, Aiherra)
 Larramendy, Tristant (1928, Donoztiri)
 Martinon, Maixan (1936, Aiherra)
 Maya, Graxi (1941, Aiherra)
 Mendiboure, Angèle (1931, Makea)
 Moleres, Noël (1950, Heleta)
 Mougica, Aña Mari (1944, Lekorne)
 Mougica, Raymond (1942, Lekorne)
 Oxarango, Maddi (1907, Donoztiri)
 Oxarango, Mattin (1928, Makea)
 Pagola, Martxalin (1936, Heleta)
 Robles-Aranguiz, Irkus (1937, Bilbo)
 Robles-Aranguiz, Ugutz (1939, Beskoitze)
 Sabarots, Charles (1931, Makea)
 Sabarots, Xaneta (1934, Itsasu)
 Sainte-Marie, Jean-Pierre (1934, Landibarre)
 Théret, Mizel (1959, Hazparne)
 Uhalde, Peio (1955, Makea)
 Urruty, Laurent (1937, Aiherra)

www.hazparne.mintzoak.eus

orrian aurkitzen ahal dira lekukoak
 zerrenda eta haien biografien loturak



MEMORIA & SORKUNTZA



ERLEKETA © Oskar Alegria

«*Eleketa, ahozko oroimenak*» erakusketaren karietara, **Lur Olaizola** (Donostia, 1988) eta **Oskar Alegria** (Iruñea, 1973) filmegileei ahozko memorioaren gaia esploratzea eskatu zaie. Bakoitzak bere gogoeta eta irakurketa pertsonalak eskaintzen dizkio bisitariari aurkeztutako lanen bitartez.

LIBERTATEA

**Lur Olaizola Lizarralderen film bat, 2020
15 min.**

Zein pelikula ikusi ote dira Ortzaizeko zine gelan? Zein irudi? Eta, Donibane Lohizuneko Le Sélect aretoan?

Norbaitek film bat kontatzen dizunean, hitzak irudi bilakatzen dira: japonesak atun arrantzan, Cadillac eder bat, zerua blu. Irudiak pantailatik atera eta bizitzan sartzen dira. Elkarriketa pantailarik gabeko zine areto bihurtzen da.

ERLEKETA

**Oskar Alegriaren film bat, 2020
11 min.**

ERLEKETA da hitzak sortu aitzin existitzen zen mundura bidaia bat. Hitzak letrazkoak ez ziren garaian, paisaiaren musikan zaunkak, orroak, uluak eta txioak nagusitzen ziren. Gure soinuak barne. Itsasoak, mendiak eta haizeak mintzaira zuten eta guk haien oihartzuna.

Gure azken hitzen eramaileak erleak izan dira. Izan dira, diogu. Egun gure ixiltasunaren zaindaria dira.

Gipuzkoako diputazioak laguntza ekarri dio Lur Olaizolaren egitasmoari.

MINTZOAK.EUS ATARIA

Mintzoak.eus **Euskal kultur erakundeak sortu eta kudeatu plataforma numeriko bat da, Iparraldean bildu soinu edo ikus-entzunezko lekukotasunen hedapena errazteko asmoz.**


MINTZOAK.EUS ZENBAKITAN

929 grabaketa
809 lekuko
4 360 pasarte
2 512 bideo/soinu

Mintzoak.eus atariaren bidez, hona EKE-k finkaturiko helburuak:

- Bere ikus-entzunezko fondoak edo behar diren baimenak izanez gero, beste fondo batzuk sarean eskuragarri ezartzea
- EKE-ren egoitzan kontsultagarri diren ikus-entzunezko bildumetako kopiak biltzen dituen katalogo numeriko elebiduna publikoaren esku ezartzea
- Bildumak dituztenei plataforma bat eskaintzea ipar Euskal Herrian bildu lekukotasunak publikoaren esku utz ditzaten
- Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren inguruko artxibo soinudunen eta orohar ikus-entzunezko bildumen berri ematea

2020ko azaroaren 10etik goiti, erakusketan ikusgai diren bideo-pasarteak mintzoak.eus atarian aurkituko dituzu!



© Euskal kultur erakundea

3. PARTAIDEAK

EKOIZLEA



PARTAIDE NAGUSIA



VoTRE
PARTENAIRE
ÉVÈNEMENT

PARTAIDEAK HAZPARNEKO LURRALDEAN



ARTXIBOETAKO PARTAIDEAK



ERAKUSKETAREN BABESLEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN BABESLEAK



RÉGION
Nouvelle-
Aquitaine



4. HARREMANAK ETA XEHETASUN PRAKTIKOAK

« **ELEKETA, AHOZKO OROIMENAK** »
HAZPARNEKO LURRALDEA
IRAILAREN 25ETIK • AZAROAREN 7RA

Pierre Espil Mediateka

Gaskoina karrika, 11 - 64240 Hazparne
05 59 70 16 83
mediatheque.hasparren@wanadoo.fr
www.mediatheque.hasparren.fr

Sartzea dohainik

Asteartea: 14:00-18:00
Asteazkena: 10:00-18:00
Osteguna: 14:00-18:00
Ostirala: 14:00-19:00
Larunbata: 10:00-12:00 / 14:00-18:00

Prentsa harremana

Marion Lastiri

05 59 93 38 77
marion.lastiri@eke.eus

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK EKOIZTU ERAKUSKETA

EKE-ko lantaldea

Pantxo Etchegoin, Fred Berruet, Maite
Deliart, Maia Etchandy, Maitane Hernandez,
Jakes Larre, Marion Lastiri, Terexa Lekumberri,
Elix Mortalena, Frank Suarez

Erakusketaren koordinazioa - Multimedia integrazioa

Jakes Larre

Pasarteen hautaketa

Maite Deliart, Terexa Lekumberri

Transkribapenak - Itzultzaileak

Chelo de Bastida, Ekaitz Bergaretxe, Argitxu
Errotabehere, Antton Harignordoquy, Peio
Heguy, Joana Pochelu, Kattalin Totorika,
Txomin Urriza, Nahia Zubeldia

Zuzenketak

Fred Berruet

Eszenografia, grafismoa eta ekoizpena

Digital graffic

Nortasun grafikoa

Guénolé Le Gal

Argazkiak

Matiu Bordato, Séverine Dabadie, Polo Garat,
Jean Guyot, Gaizka Iroz, Christian Jougoux,
Yann Trelu, Daniel Velez

Aplikazio interaktiboak

If diseinuak

Komunikazioa

Marion Lastiri

Webgunea - Mintzoak.eus

CodeSyntax

Fred Berruet, Maitane Hernandez, Jakes Larre,
Marion Lastiri

Oharra:
« *Eleketa, ahozko oroimenak* » erakusketa 2020ko azaroaren 14tik
abenduaren 13ra Donibane Lohizunen erakutsia izanen da

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Lota Jauregia 64480 Uztaritze
05 59 93 25 25 | info@eke.eus
www.eke.eus